V. SAN MARTIN AZOKA



Euskal Birusa ta Udalak elkarlanean burutu daben San Martin Azokaren bostgarren ediziño honi eguraldixaren laguntza besterik ez jakon falta izan. Ze tripa apurtu ote jakon eguraldixari bota zeban besteko ura botatzeko! Goiz osuan zihar eurixa ta lanparra besterik ez genduan euki. Baiña ermuarron halako jai zaletasuna goraipatu bihar. Ehundaka pertsona pasatu ziran egun horretan plaza osua betetzen zeben postuetatik. Dana ikusi, zeozer erosi, lagun artian taluak ta txorizua jan, txarrixari bisita ein... horretxek izan ziran urreratu zan gehixenguakin eindakuak.

Askok, azken urtiotan gero ta indar haundixaua hartzen doian ohitxuriari ekin zoutsien: azokan erositako hainbat gauzekin lagun artian alkarte desberdiñetan bazkaldu. Beste askok, Azokako tabernako aterpian egin zan bazkari herrikoian parte hartu zeben.



ZARAUZTARRA JATETXEA

LEHEN, ORAIN ETA BETI
- Zapua
- Txuletak
- Bildotsa burduntzian
- Laranja flana

EKINTZA

ESKOLAKO MATERIALEA.....
FOTOKOPIAK.....
FAX PUBLIKOA.....

Goienkale, z/g • Tlf. 17 20 08

MIGUEL
Haratategia

TXORIZOAK



ODOLOSTEAK

Probaleku, 3
☎ 17 05 63
ERMUA (Bizkaia)

Guztira, 43 erakustaille batu ziran. Kontutan eukita gure inguruko baillaretan ortuarixak ta frutak dirala jaun ta jabe, 26 basarri etorri ziran ortuko kontuekin.

Herri inguruko mendi malda guztixak ortu txatalez josita ikusita, bateron batek Ermu Ermukuak oso gitxi zeuazela pentsau leike. Bai, baiña

AZOKAKO IRABAZLIAK

FRUTA ETA ORTUARIXAK

1. sarixa- Alejandro Arrieta, Xemein Gain baserrixa, Markina-Xemein
2. sarixa- Arantza Arrien, Ostekue, Aulesti

OGIXA

1. sarixa- Mª Karmen Solozabal, Atxitxe baserrixa, Mallabia
2. sarixa- Juan Irugüenpagate, Urrusolo Errota, Etxebarria
3. sarixa- Mª Dolores Egia, Elizburu, Berriatua

EZTIXA

1. sarixa- Valentin Ilona, Jauregi Zahar baserrixa, Zornotza
2. sarixa- Jesus Olaizola, Zearreta, Gernika
3. sarixa- Alejandro Gomez Martin, Bilbo

SAGARDAUA

1. sarixa- Eugenio Jaio, Gontzolai baserrixa, Aulesti
2. sarixa- Ramon Laka, Uskola, Mendex

GAZTAIA

1. sarixa- Floren Txurruka, Barroeta Torre baserrixa, Markina- Xemein
2. sarixa- Jose Arizmendiarrieta, Bareta, Barinaga, Markina-Xemein

AIPAMEN BEREZIXA- Santos Duñabeitia, Bolungarai, Berriz

PRO

- ARRAINDEGIA - ITSASKIAK
- ARRAIN FRESKOAK ETA IZOZTUAK

I. Olañeta, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
ERMUA

DERMOESTETIKA INTEGRATUAREN ZENTRUA

PILAR

(Estetika mixtoa espezializatua)

- HIDROMASAIA
- ESTETIKA MORFOLOGIKOAREN DIAGNOSIA
- AURPEGIKO TRATAMENDUAK
- MEDIZINA HOMEOPATA

Zubiaurre, 24 - 1. esk. ☎ 17 30 66
INFORMAZIOA ESKATU

Bar GERALEKU

Bost'erdietatik zabalik.

San Inazio, 5.

Urdaitegia

MAITE

Merkatu Plaza, 40
Telefonoa: 17 24 12

OKINDEGIA
Ignacio Peña

Okindegiko ☎ : 17 01 69
Etxeko ☎ : 17 14 55

Goienkalea, 12 - behea *ERMUA*

QUETZAL

Opari denda
Zure gustokoa izan dadila
Goienkale kalea ☎ 17 43 62

dakizuenez erdikaldian zeuazen basarri guztixak (Otxua, Infreñu, Orozko, Santuku, Urbibitxarte, Arrako, Karabixa, Zinko...) aspaldi bota ziran ta gaur egunian apur batzuk geratzen jakuz. Aitxatu barik ezin itxi hamabost egunetan erdikaldeko bi dendetako eskaparatiak jantzi zitxuezen arrantzal, labrantza ta etxe barruko tresnerien erakusketak sortu zeben ikusmira aparta. Aintxiñako bizitza ta biharra eitxeko erremintxerixia ermuarroi urreratzeko Ondarru, Mutriku, Markiña, Mallabi ta Ermuko erakunde ta pertsona desberdiñak ahalegindu dira.

Azkenik, esan bihar produktuen balixua neurtu zeban epaimahaia lau pertsonez osatuta zeuala. Herriko ordezkari modura Begoña Areitioaurtena, MIBA kooperatibako Karmelo Jaio, EHNEko Gloria Agirrebeitia, Bizkaiko Erlazainen Elkarteko Joseba Ander Velasco.

Euren esanetan aitxatzekuak izan ziran alde batetik ortuari ta fruten kalidadia, bariedadia ta batez be basarritxarrak puestua txukun jartzen eindako ahalegiñak. Eta bestetik, eztixaren kalidade altua, gaztai ta ogi batzuren mailla eskasaren onduan.

Illuntze aldera ein zan zozketan, Manuel Rodriguez izan txarrixa eskuratu zebana, 3.266 zenbakixarekin, ta untxiak Jose Manuel Amas "Zumai"rentzat izan ziran, 3.289 zenbakixa erosi zeban ta. Zorixonak bixoi ta on ein!

Estibalitz Gonzalez
Santos Vega

OPTICA
J. CASADO
Lenteak
Audifonoak
Graduatutako Antijuak
Eguzkirako Antijuak
Kantabria, 2
Tfnoa. 17 33 57 ERMUA

Maite Ileapaindegia
Kaltxango, 17 - 3° • ☎ (943) 17 02 94

PATXI TABERNA
Gau eta egun
Alde zaharreko betiko taberna



San Martin usainak

Iristear dauden azaroko haizeek ekartzen dizkigute ermuarroi azkenengo lau urteotan sortuta, gaur egun argi eta garbi sustraitu den San Martin Azokaren usainak. Makaleko lana izango dugu gure sudurretara sartuko diren gas ezberdinen ñabardurak antzematen, ez baitira gutxi izango azaroaren 7an hasita bi astetan zehar Ermuan aske ibiliko direnak.

Usainak usain, nekazal eta arrantzaleen mundura hurbilduko gaituztenak dira lasterketa zoro hau irekiko dutenak, iaz erakusketa bat izan bagenuen ere, aurtengoan bi erakusketa bisitatzeko aukera emango digutelako Ermuan euskararan birusaz kutsatu nahi gaituzten horiek. Izan ere, birus honek aurkeztuko du usainaren lasterketako faboritua, euskararena alegia. Honek, bere aldetik, burruka galanta egin beharko du San Martinen txerriarenarekin. Inguruetako baserritarrek euren produkturik ederrenak plazaratuko dituzte urtean zehar ixilean, poliki-poliki eta maitekiro egiten duten lana azokara hurbilduko direnen aukeran jartzeko. Talozaleok gustokoen duzuen jakia dastatzeko parada ezin hobea izango duzue, talo, txorizo eta sagardoaren usainak ere lehian egongo dira eta.

Dantzaren eskutik hartuko dug parte kaletarrok norgehiagoka honeta eguerdian Txindurriko dantzarien txa da izango bada ere, arratsaldean Lontx taldeak jarriko gaituelako dantzan gu kanpo eta barruko esentziak aska ditz gun.

Azken batean, gauza bat ziurra d Azaroaren 12an, eta konpetizioak al batera utzita, gure plaza usainez, kol rez eta zaratez jantziko da, bertara hu bilduko garen guztiok gozatu ahal iz ditzagun. Lortuko dugu euskarare usaina igartzea?

Gaizka Arcitioaurten

V. San Martin azokaren egitaraua

Azaroak 11, ostirala-
Bertso afaria
Jon Enbeita
Jokin Sorozabal
Zarauztarra tabernan, 21:30etan

Azaroak 12, larunbata-
10.00-11:00 bitartean Produktuen balioztapena
12:30etan dantzariak
Goiz osoan zehar trikitilariak
16:30etan Sari banaketa
17:00etan erromeria Lontxo taldearekin
18:00etan txarriaren zozketa

Azaroaren 7tik 20ra-
Erakusketak egun osoz.
Zubiaurreko 4an laborantza eta etxe barruko aparailu ezberdinak, eta egunero 19:00etatik 21:00etara aurreko urteetako San Martin Azokaren etengabeko filmina emanaldia.
Cardenal Orbe plazako 6an arrantza mundua hurbilduko diguten hainbat tresna ikusgai



DROGETENITTURRI
iragarkiak

60x41 mm. = 1.000 pzta.

ESKA EHUNAK

- Jantziak egiten dira
- Ebaketa ta jantzigintzazko klaseak ematen dira

Goienkale, 9 • Tlf. 17 44 69

ARRIETA CORDEVI

Elektratresnak, telebistak, bideoak, musika aparatoak...
prezio eta kalitate ezin hobean

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

San Martinen estutasuna

San Martin errementaria zan. Bein bere arazo-artean, nekearen nekeaz eta beroaren beroaz edo, minduta asarrez egoan gizona; eta Txerreni, estualdi atatik ataratearren, arima emoteko gertu egoala esan eban.

Beingoan agertu dakan Txerren,

-Amen naukak, Martin - esanda.

-Ezaut nik bear i ezetarako.

-Euk dei egin daustak eta ona ni.

-Dei egin badauat zer egiten doadan eztakidala egin izango doat.

-Ta ta ta ta ta! Neugaz bear dok.

-Ezetariko gogo bagarik egin dodala.

-Martin: nire eskuetatik jara (libre) egon gura badok, gauza bi egin bear izango dozak oraintxe: lenengoa, burdinazko tresna barri bat asmau; bigarrena, amabi misterio andiak zeintzuk diran esan.

-Burdinazko tresna barri bat!!- agin-artean esanda, larri lurrera begira egon zan lenengo; gero goialdera, laguntasun-eske bailegoan eta gaztaina-adarretan akasdun orri eder luzeak ikusteak burutasun barri bat sorrarazo eutsan garun-artean.

Gero urduri-urduri lanean asi zan. Burdinazko zatai ta ailarak sutan sartu ta txingura-ganera porrikaz ekarri ta taunk eta taunk, taunk eta taunk ekin eutsan san Martinek lanari... Lenengo zerreak orduantxe gizon baten eskuartetik burua atarau eban.

Bigarren eskabidea, amabi misterio andiak aitatzea, bien artean egin eben: Txerrenek itandu, San Martinek erantzun.

-Martintxo: esaik bat.

-Gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak; baina ez i.

-Martintxo: esaik bi.

-Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak; baina ez i.

-Martintxo: esaik iru.

-Iru Trinidadeak iru, Erromako altarak bi, Gure Jauna bera dok...

-Martintxo: esaik lau.

-Lau ebanjelariak lau, iru Trinidadeak iru, Erromako altarak bi... eta abar.

-Martintxo: esaik bost.

-Jesukristoren zauriak bost, lau ebanjelariak lau, iru Trinidadeak... e.a.

-Martintxo: esaik sei.

-Sei argi-egileak, Jesukristoren zauriak bost, lau ebanjelariak... e.a.

-Martintxo: esaik zazpi.

-Zazpi Sakramentuak, sei argi-egileak...

-Martintxo: esaik zortzi.

-Zortzirak dira zeruan, zazpi...

-Martintxo: esaik bederatzi.

-Bederatzi ordenamentuak... eta abar...

-Martintxo: esaik amar.

-Amar mandamenduak... e.a.

-Martintxo: esaik amaika.

-Amaika mila aingeruak... e.a.

-Martintxo: esaik amabi.

-Amabi apostoluak, amaika mila aingeruak, amar mandamenduak, bederatzi ordenamentuak, zortzirak dira zeruan, zazpi sakramentuak, sei argi-egileak, Jesukristoren zauriak bost, lau ebanjelariak lau, iru Trinidadeak iru, Erromako altarak bi, Jesukristo bera dok bat, berak salbauko gaiozak; baina ez i.

-Martintxo: esaik amairu.

-Eztok amairu.

-Badok amairu.

-Oilarrak yoten dau munduan, aingeru ederrak zeruan, neure arimea izten däutsat Andra Mariari altzöan.

Eta orduan itsutu (aienatu) zan Txerren.

RAUL BOGAJO

Azoka prestatzeko Udaletxeko Pleno Aretoan zenbait bilera burutu dira.

Ermuko Herri Taldeen Azoka

Ermuko kultur, kirol zein giza kolektiboren baten dinamikan parte hartzen duen jende askorentzat "Herriko Kolektiboen Gida" argitaratzeko asmoa ezaguna zen aspalditik. Eginkizun hau, Drogomenpekotasun eta Bazterkeriaren prebentziorako Udal Zerbitzuaren eskuetan geratu zenetik, gainontzekoak zain. Eta dexente itxaron ondoren, badirudi asmoa gauzatuko dela. Azaroaren 4an, arratsaldeko 7etan, Udaletxeko atikoan, aisialdia eta prebentzioari buruz emango den hitzaldian aurkeztuko da, azkenik, aipatutako gida.

Kolektiboen arteko harremanak errazteaz gain, gida honen begibistako beste helburu bat, herrian existitzen diren dantza eta antzerki talde, kultur elkarte, kirol klub, emakume, gazte, musikazale, antimilitarista, ekologista, pinturazale, eta abarren kolektiboen helbidea, ekintzak, helburuak, funtzionamendua eta kontaktatzeko modua herritar guztien eskura jartzea da. Helburu hau osatzeko asmoz, aurkezpenaren hurrengo bi egunetan, hau da, larunbata eta igandean, San Pelaioko plaza berrian, banaketari ekingo zaio, baina ez edozein modutan, baizik eta, ahal den neurrian, gida horretan azaltzen dena zuzenean ikusteko aukera eskeiniz. Horretarako 50 kolektibo inguruk hartuko du parte, asteburuan zehar bertan izango den "Herriko Taldeen Azoka"n "stand"ak jarriz eta bertan euren lanak eta asmoak azalduz, ekitaldiren baten bitartez, eta bakoitzak nahi edota ahal duen moduan jendeari berea jakinarazten.

Manuel Moreno